

# Iratxe Aranburu

## «Emakumea hasi da kirola egiten, baina ez dakit modu egokienean»

Korrikalari askorena da: kilometroak eta kilometroak egin astoa kartolarekin bezala. Ez ezkerrera, ez eskuinera, aurrera begira. Eta itsu. Iratxe Aranburuk ezker-eskuin begiratzen du eta tristetu egiten da, emakume korrikalariak ikusten ez dituelako. Zergatik ez da ageri emakume kirolaria? Erantzuna paragrafo batean ezin dela eman demostratu digu, emakumea-kirola bikoteak konfliktu asko baititu. Aranburuk horietako asko ezagutzen ditu, bere larruan bizi izan dituelako.

### ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Dani Blanco

#### Zergatik egiten duzu korrika? Hobeto esanda, zergatik segitzen duzu 31 urterekin korrika?

Hasi nintzenean ez nintzen konturatzen, baina azken urte hauetan konturatu naiz on egiten didala. Atletismoak bizitzarako kristoren baloreak eman dizkit, bizitza errealean lagundu egiten dit; eguneroko pereza gaintitzen, konstante izaten —iraupen korrikalaria naiz, urrutiko helburuak lortzeko eguneroko lanaren garrantziaz konturatzen zara—, momentu ez hain onetan eta onetan sakrifikatzen, porrota gaintitzen, irabazten denean barne indar hori erabiltzen... Oposaketak prestatzeko eta orain lanerako balore horiek balio izan didate. Nik, berez, pazientziarik ez daukat, zeharo nerbiosa naiz. Korrikak orekatu egiten nau, oreka horrek bizi-tzan gehiago errenditzaera eramaten nau.

Bestalde, inguruko asko ikusi ditut errendimendu mailatik erortzen, utzi egin diote edo makal dabilta. Entrenamenduetan gehiegikeriak egin dituzte. Neskei gainera, lehiaketaren berezko exijentziaz gain, gizarteak beste hainbat zama bizkarreratu dizkie. Besteren artean, elikadura (anorexia adibidez) arazoak dituzte;

badira nire inguruan errendimenduko kirola utzi behar izan dutenak. Ez da nire kasua, niretzako korrika bigarren mailako kontua izan da, entrenatzailea egokitu da beti nire bizimodura. Orain iritsi da momentua non erraz nabilen, bizindarra daukat, kemena. Urtetan egindakoa eginda, orain pena ematen dit uzteak, orain daukadan oinarriarekin erraz lortzen ditut helburuak.

#### Zure lagun batek esaten du korrika egitea zuretzat liberazioa dela.

Nik batzuekin txoke egiten dut. Korrikalari artean hitz egiten dugunean batzuek esaten dute korrika egitea asko gustatzen zaiela. Niri ez zait gustatzen. Zera esan nahi dut: futboleko aritze-ko aukeratu ninduten, baina nik ez nuen lehiatu nahi. Atletismoan hasi nintzen, hasieran kostata, lotsa ematen zidan... Emaizetan soilik ez, dena erronka bat bestearen atzetik izan da; emakumea izatea, errendimendu mailan aritzea... Erronkak gaintzen joan naiz eta hori niretzako esfortzua da, ez da desatsegina, baina ez dut bizi izan beste batzuek irudikatzen duten bezala “korrika izugarria da”. Ez dut horrela bizi.

## Nortasun agiria

Iratxe Aranburu Epelde 1976ko urtarrilaren 30ean jaio zen Zarautzen (Gipuzkoa). Bertan bizi da eta bertan egiten ditu makina bat kilometro korrika ia egunero. 15 urte daramatza korrika, Euskadiko zein Espainiako Txapelketa ugaritan parte hartuz. Behobia-Donostia maratoi erdi famatua bi aldiz irabazi du Atletico San Sebastian klubeko atleta honek. Orain Akilesen tendoiak gerra ematea erabaki du, eta geldirik dagoen arren, abuztuan etxean (Donostian) izango den Espainiako Pistako Txapelketa du helburu. Soin Hezkuntza ikasi zuen eta Arrasateko Udaleko kirol teknikaria da. Kirola afizio eta ofizio, baina ez bizitzaren ardatz. Musika kontuetan aspaldi sartu zuen muturra eta saxofoia, klarinetea eta gitarra jotzen ikasi zuen. Alproja antzerki taldean aritu zen, herri aldizkarian ere bai... Irakurle amorratua da. Dantza egiteak askatzen du; korrika zurrunegia omen.



**Txumai Fernandez da zure entrenatzailea. Zein da bera?**

Lortu dudan dena eta naizenaren parte handia. Nire bizitzaren giltzarri da, gehien ezagutzen nauen pertsona. Korrika, kirolean, lehiaketan zaren guztia ateratzen zaizu, ez dago maskararik, ez armadurarik. Berak lortu du nire onena indartzea eta txarra apaltzea. Beno, pinua naiz eta sagarrak ez ditut emango. Berak badaki pinua naizela. Askotan nigan gauza asko ez ditu ulertzen, ez omen daukat nahikoa anbizio. Hasi nintzenean ez nuen lehiatu nahi, “ez dut existitu nahi!”. “Txumai, hau ez dut nahi!”, esaten nuen nik.

**Lehiaketa lehiaketa da.**

Begira non bukatu dudan! Lehen beldurtia nintzen, orain ez, orain aldatu egin naiz! Txumai gaizki bideratuz gero, gutxiarekin utzita neukan. Oso zaila izan naiz. Lasterketa egunean, autoan, errezatzen joaten nintzen lasterketa bertan behera gera zedin, ez nion aurre egin nahi. Hori gainditzea kristorena zen niretzat. Espainiako Txapelketetan parte hartzen hasi nintzenean niretzako tortura zen. Zergatik ibili behar nuen horrela? Utzi eta kito. Oso perfektionista naiz eta ez nuen frakasatu nahi. Ez nuen lehiatu nahi, nahiago nuen entrenatu, lagunekin kafea hartu eta patinekin ibili.

Espainiako Txapelketara joateko adina maila daukazu, ez duzu egunean bi aldiz entrenatzen eta egunean zortzi ordu egiten dituzu lan. Zurea ez al da tamainarik txarrena?

Inork ez dit galdetu hori. Oso ezker txarreko

**Estetikaren morrontza**

“Emakumea hasi da kirola egiten, baina ez dakit modu egokienean hasi den. Kirola egiten hasi dira batzuk, baina itxuragatik, irudiagatik, gizarteari begira, eta gainera askotan esparru pribatuetan, gimnasio pribatuetan, aerobic bezalako jarduerak modan jarri direlako... Neska kirolari asko dago gaixo estetikaren loturan”.

postua da nirea. Ez naiz goi mailako kirolaria, errendimendu mailan nago. Sakrifikatu egin behar dut eta lehiakorra naiz. Espainiako rankinean, iraupen frogetan, 8-10. postuen artean nabil urtero. Badut gaitasuna aurrerago egoteko, hala uste dut, eta hala esan didate, baina hobetzeko arlo asko ez ditut ukitu: elikadura, mekanika, medikuntza... Hori dena landuko banu gorago egoteko aukera izango nuke. Ez dizut esango Munduko Txapelketara iritsiko nintzatekeenik, baina orain baino gorago bai. Dena dela, ari naiz konturatzen, nahiz eta ezker txarreko egoera izan, nik ez dudala goi mailako kirolari izan nahi, ez dut inoiz izan hori buruan. Lanak ere asko betetzen nau. Lanik gabekoa banintz eta Olinpiar Jokotara joateko aukera nukeena... Baina ni nagoen egoeran, ez nuke aldatuko. Emaitzek ez didate hainbeste ematen. Gauzak probatzea gustatzen zait eta goi mailako kirolari izanda ez nintzateke aseko, iturri bakarretik edatea litzateke hori. Hortan ari direnei izugarritzko meritua ematen diet!

**Zarautzen entrenatzen zabiltzenean emakume gutxiarekin gurutzatzen zarela esan duzu eta horrek tristura ematen dizula.**

Emakumearen gaia oso garrantzitsua da. Emakume jaio naiz, zori hortan. Bizitzan konflikto piloa izan ditut, gauza txikiak, detaileak... Orain konturatu naiz gizartean dagoela arazoa. Konfliktuen erantzunak orain ari naiz aurkitzen, kirol teknikaria naizelako, ari naizelako dokumentatzen... herri bat eta bere kirola ulertzen.

Kirola ulertzeko gizarteak egin duen antolaketa ulertu behar da. Oinarria eskola kirola da eta gero daude errendimenduko eta aisialdiko

(kirol partehartzailea) kirol ibilbideak. Orain arte kirola errendimenduarekin lotu dugu. Zein da kirolaria? Futbolaria. Zergatik ez da futbolari hori baino kirolariagoa igeri egitera joaten den emakumea? Zarautzen korrika nabilenean ikusi beharko nituzkeen emakumeak hirugarren multzo horretakoak dira, baina oso gutxi dira.

Nik diodana da eskola kirola mutilentzako pentsatua dagoela, neskatilek eskaintza hori nahi al dute? Txikiek ez gara ari asmatzen. Txikitako garaiak gogoran, kirola ez zen gurera egokitu, gu egokitu ginen kirolera, gizonetzkoen eremura, alegia. Beti esan da neskek ez dutela kirolik egin nahi, mutilak kirolean astakirtenak direla eta neskak baldarrak. Agian, kirol eskaintza eta exigentziak (mutilen trebeztan oinarrituak) dira nesken partaidetza murriztaren arrazoi nagusiak.

Eta partaidetza kirola, hori da zuk ulertzea nahi dudana; kirola guztientzat. Horrek arduratzen nau gehien. Kirolaren onurak jendeak ez ditu deskubritu eta guk ere ez ditugu egitura egokiak eskaini. Partaidetza kirolaren helburua da gozatzea, harremanak izatea, estetika... Malgua da. Errendimenduaren helburua da emaitzak lortzea; konpromisoa, sakrifizioa eskatzen dizu. Orain arte kirola lehiakortasuna zen, orain jendeak nahiko estres badu eta kirola lasai egin nahi du, osasuna zaindu, libre ibili... Dena dela, partaidetza kirolean bada kontraesana, batetik malgua da eta emakumea libre da zentzu horretan, baina emakumeak estetikaren morroi bihurtzeko arriskua du, motibazioa askotan estetika baino ez delako.

**Emakumea eta kirolaz ari zarenean hiru elementu nabarmendu nahi izaten dituzu: gorpuzarekiko harremana, aisialdirako denbora eta espazio publikoan emakumeak duen tokia.**

Olinpiar emakume batek esana: “Korrika egiten hasi nintzenean, autoak albotik igarotzen zirenean, halako lotsa sentitzen nuen bide bazterrean loreei begira nengoenaren itxuran jartzen nintzela”. Gizonezkoek gorpuzarekiko auto-kontrol gehiago daukate, beren gorputza dute. Emakumearena gehiago da gizartearen gorputza, ugalkortasunaren eta irudiaren gorputza. Begiratuagoak sentitzen gara. Olinpiar atleta horrek sentitzen zuena nik nire mailan sentitu dut: galtzak jantzi eta atzeko bidetik *a toda hostia*, ilunpetan Itsasmendiraino [Zarauzko auzoa] joaten nintzen. Korrika bakarrenetakoa nintzen eta jendeak begiratu egiten zidan. Igoal da ni neu horrelakoa naizelako baina...

Jendearekin ere zer gertatzen da? Zarauztar emakume askok dio “Zarauzko kros mistoa



egingo nuke!” [gizon-emakumea izaten da korrikako bikotea]: denbora badaukazu, bikotea badaukazu, fisikoki nola prestatu nik lagunduko dizut... “Jo, eske...”.

Aisialdiari dagokionez, emakumeak zein gizonak denboraren %57a lanari dedikatzen dio. Emakumearen portzentajea gizonarekiko hirukoiztu egiten da etxeko eta zaintza lanean. Orain atera izeaiozu emakume horri denbora kirola egiteko –partaidetza kirolari buruz ari naiz–.

Konkistatu behar dugu denbora librea, irudiaren morrontzatik atera behar dugu eta esparru publikoa irabazi. Kirola disfrutatzeko dela ikasi, askatasuna ematen digun zerbaiten moduan, osasuna dela ikasi, lagunekin egoteko modua, orduan lortuko dugu emakumea kiroleratzea. Osasuna eta gozamina gailentzen direnean, emakumea benetan kirolera hurbildu ahal izango dugu.

## Entrenamendu perfektua

“Zarautz-Zumaiako kostaldeko bidea, igande goiza, aldamenean bizikletan Haritz daukada. Sasoian zaudela, borrokan egin behar duzun egun horietako batean, mugan zabiltzala. Eguraldia fresko, eguzkitsu, haizerik ez! eta olatuei begira. Harkaitz guztiak ezagutzen ditut. Badakit pare bakoitzean nola sentituko naizen. Harkaitzak familiarrak egiten zaizkit, etxeko sentitzen naiz errepide horretan. Itsa-soaren usaina, algak, erretiraterakoan itsasoak egiten duen soinua... Txikikeria horiek asebetetzen naute. Errepide horretan bizitza ikusten dut: Haritz aldamenean bizikletan, bizikletan dabilzan gainerakoak, paseatzen dabilzanak, arrantzan ari dena...”

Aisialdiko kirolean hori da ahalegina, baina errendimendu kirola oso lehiakorra da eta emakumeak eredu maskulinoari segitzen dio.

Nire hausnarketa: mahai-ingurua antolatu da eta gonbidatuak hauek dira: Naroa Agirre, Josune Bereziartu, Eneritz Iturriaga... Horiek gizonetzkoen trebezietan garaipena lortu duten emakumeak dira. Zergatik ez doa mahai-ingurura haurra izanda piszinara joateko denborarik ez duen emakumea? Nork hitz egin behar du gai honetaz? Emakumea eta kirolaz ari garenean beti errendimenduaren alorra ukitzen dugu eta emakumea ondoen partaidetza alorrera egokitu da.

Bi kirol mundu bezala ditugu: errendimenduko kirolarena eta aisialdiarena, ematen du antzekoak direla baina elkarrekin zerikusi gutxi daukate. Errendimenduan jende gutxi dabil, baina oihartzun mediatikoa du, baliabide ekonomikoak ditu eta gizarteak kirol mota hori baloratzen du. Esparru batek gutxi egi dauka eta besteak gehiegi. Lehenengoan gizonak nagusi dira, nabarmen, eta horrela, kirola beraiena dela dirudi.

Zeure buruari egin diozun galdera erantzun ezazu: “Noiz sentitu naiz gehiago diskriminatua kirol teknikari gisa ala kirolari moduan?”

Garbi, kirol teknikari bezala. Korrika mutilekin nabil, Behobian 1'13” egitera noa, “joe tipa hau!”. Hori dena demostratu behar dut nik norbait izateko? Emakumeak hori dena demostratu behar al du? Emakumeok gizonen baino ahalmen fisiko gutxiago daukagu. Behobiako nire denborak zein bi orduan egiteak, biek balio beharko lukete! Gero, elkartu zaitetz laneko hainbat gizonekin eta entzungo duzu: “neskatila hau?”, esanez bezala, “hau bada korrikalari prestu hori izango du kasta lanerako”. Horrek izorratu egiten nau, korrikalariaren erreferentziarekin langile gisa izan



## Rolak alderantziz

“Zera esaten didate: ‘Haritz astero dabil erosketetan’. Nire mutila triatleta balitz eta ni Eroskin ikusi, seguru inork ez lukeela esango ‘Irati beti erosketetan bakarrik dabil’. Haritzek laguntzaile papera dauka, ni korrikalaria naizelako”.

beharko nukeenari buruzko iritzia eraiki dutelako. Nik ikasketak eta oposaketak egin ditut, nire ezagutzak ditut, hori bai dela nire bizitzako maratoia!

Lilatoia eredu egokia al da? Emakumeek baino ez dute egiten korrika.

Beharrezkoa da. Hasiera puntua da, eroso sentitzen da emakumea. Bera bezalako emakumeak daude, bere moduko gorputzarekin, beren momentua da, eremu publikoan daude. Lehen aipatu ditudan hiru aldagaiak daude: denbora libre, gorputza eta espazio publiko. Lilatoia heavy da eta emakume asko ez dira horren alde, baina beharrezkoa da.

Lilatoia apartheid modukoa dela diote batzuek.

Kristoren marketina da emakumeak animatzeko. Aldarrikapena da. Lilatoian parte hartzen duten emakumeek eta gainerako emakumeek nahi luketen aldiro kirola egiteko aukera